



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO (BBUP) GALINDO HUA-N ALUMINIO-POLIKLORUROA HORNITZEA

2. DOKUMENTUA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Aluminio-polikloruroa hornitzea Galindo HUAn koagulazio-malutapenaren tratamendu fisiko-kimikoak egiteko.

Honako aluminio-polikloruro kopurua hornitu beharko da Galindo HUAn

- Galindo HUA 1.450 tona aluminio-polikloruro (*)

(*) Kopuru hori eskatzen den gutxieneko aluminio-oxidoaren edukian oinarrituta dago (% 16 pisan). Kontuan hartuta ehuneko hori aldatu egin daitekeela fabrikatzailearen arabera eta konparaketa ekitatiboa egiteko, pleguan eskatzen den zenbatekoa aluminio-oxido forman zehazten da eta merkataritza-produktuaren zenbatekoa doitu egin da aluminio-polikloruroak bermatuta duen gutxieneko aluminio-pisuaren ehunekoaren arabera.

Edonola ere, aipatutako zenbatekoak adierazgarriak izango dira, eta azkenean hornitu beharreko kantitatea ez da beti berdina izango; hala, ez da ezarriko hornitu beharreko gutxieneko zenbatekorik eta horrek ez du esan nahi inolaz ere kontratuko gainerako baldintzak aldatuko direnik.

Jatorrian ontziratzea, jatorrian kargatzea, helmugaraino garraiatzea eta produktua HUaren instalazioetan deskargatzea kontratuaren parte dira eta hornitzaileak du horiek egiteko ardura.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Produktuak ezaugarri hauek beteko ditu:

2.1. ALUMINIO-POLIKLORUROAREN PROPIETATE FISIKOAK ETA KIMIKOAK

- Aluminioaren gutxieneko bermatutako edukia (Al_2O_3) > % 16
- Kloruroak: % 21 (+-% 1,5)
- Basikotasun erlatiboa > % 35
- Dentsitatea > 1,3 gr/cm³

Produktuak ez du dosifikazio-lanetan eragin dezaketen materialik izango eta ez du uraren kalitatea narriatu dezaketen eta erabiltzaileen osasuna kaltetu dezaketen substantzia mineralik edo organikorik izango.

2.2. PRODUKTUEN BALIOZKOTZE-PROBAK



Lizitatzailleek laborategi-probak egin ahalko dituzte ur-lagin batekin, instalazio horietako kondizioetara hobekien egokitzen den errektiboa eskaintzeko. Analizatu beharreko ur-laginaren ezaugarrietan desberdintasunik egon ez dadin, egun bakar bat ezarriko da lagina jasotzeko, hala eskatzen duten lehiakideentzat. Jasotako laginak Galindoko HUAN bertan entregatuko zaizkie lizitatzailleei, BBUPren Kontratatzaillearen Profilean horretarako zehaztutako egunean eta orduan.

3. ONTZIRATZEA, ETIKETATZEA, HORNIDURAREN ERREGULARTASUNA ETA STOCK-A

Eskaintako produktua ADRren araudira atxikita badago, bertan zehaztutakoa bete beharko da.

Materiala garraiatzen den bakoitzean identifikazio-zehaztapenak irakurtzeko moduan markatuta egon beharko dira eta gutxienez informazio hau jasoko dute:

Fabrikatzailearen informazioa:

- Izena, enpresaren izena, kalitatea eta produktu-mota.
- Pisu garbia.
- Fabrikatzailearen izena eta helbidea.
- Adierazpen hau: "Produktu honek EN 878 araua betetzen du".
- Fabrikazioaren data eta sorta.
- Produktuaren iraungitze-data.
- Segurtasun-piktogramak.

Banatzaillearen edo merkaturatzailearen informazioa:

- Banatzaillearen izena.
- Banatzaillearen helbidea.
- Produktuaren merkataritza-marka banatzailearentzat.

Produktuaren hornikuntza ontzi/bilgarri sinpleetan edo GRGn (IBC) egin behar den:

- Ontzi/bilgarri sinpleetan edo GRGn (IBC)(IBC) homologatuta egongo dira. Plastikozko GRGak (IBC) hondoa hustuta dutenak izango dira eta babeseko metalezko egitura izango dute. Barnean plastikoa duten ontzi/bilgarri sinpleak edo GRGak (IBC) fabrikatzen direnetik aurrera zenbatzen hasita bost urtera iraungi egiten dira. Ez dira onartuko iraungita dauden ontzi/bilgarri sinpleak edo GRGak.
- Salgaiari dagokion ONU zenbakia izango dute. Aurretik "UN" hizkiak jarriko dira argi eta irauteko moduan. UN 3264 inskripzioaren tamainaren altuera gutxienez 12 mm-koa izango da. 30 l baino gutxiagoko ontzi/bilgarri sinpleek (jerrikanak) gutxienez 6 mm-ko altuera izango dute.
- ADR 8. etiketa ontzi/bilgarri sinpleen eta GRG-en (IBC) gainazalean jarri behar da. Etiketak ez dira estalita geratuko bilgarriaren parteren edo elementuren batekin, ezta bestelako etiketekin edo markekin ere.
- GRGek (IBC) UN3264 markak eta 8. etiketa elkarren kontrako bi aldeetan izango dute.

Fabrikatzaileak informazio hori erakusten ez badu, bidalketa itzuli ahal izango da. Hornitutako ontzietan etiketak behin eta berriz falta badira, kontratua suntsiarazteko arrazoitzat erabili ahal izango da.

4. GARRAIOA



Erreaktiboa kamioietan garraiatuko da, eta kamioiek legez ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte, bai eta produktuaren segurtasun-fitxatik eratorritakoak ere.

Xedapen horietakoren bat urratzea nahiko arrazoi izango da karga jatorrira itzultzeko. Adjudikazioduna erantzule zuzena izango da, nola BBUPri dagokionez hala hirugarrenei gagozkiela, produktua kargatzean, garraiatzean edo deskargatzean izandako istripu edo gorabeherak eragindako edozein kalterengatik, baita garraiobidearen edozein elementuren garbiketa okerren ondoriozkoengatik ere.

Bidalketa bakoitzarekin nahitaez joan beharko den garraio-eskutitzean garraiolariak (ibilgailuaren gidariak) sinatutako adierazpen bat gehituko da. Bertan, argi eta garbi adieraziko du ezagutzen dituela garraiatutako salgaiaren arriskugarritasunaren arabera aplikatzen diren xedapen orokorrak eta bereziak, salgaiaren izaera, kantitatea, arriskuak eta istripuak, suteak, isuriak, hausturak edo ontzien narriadurak gertatzean ezarri beharreko neurriak eta bai gidariak, bai ibilgailuak betetzen dituztela indarreko legeriako baldintzak.

BBUPk inolaz ere ez du bere gain hartuko baldintza horiek urratzetik eratorritako erantzukizunak.

5. HORNIDURA JASOTZEA ETA DESKARGATZEA

Karga-, garraio-, eta deskarga-lan guztiak hornitzailearen kontura izango dira. Larrialdi-arazorik egon ezean, kamioiek produktua astelehenetik ostiralera deskargatuko dute eta, edonola ere, lanegunetan 15:00etatik 20:00ak arte, eskaria egiten denean beste ordutegi bat zehaztu ezean. Ordutegi horretatik kanpo ez da bermatzen deskargatzeko aukerarik egongo denik.

Hornidurak HUAn egingo dira eta produktua ustiapen-zerbitzuek agindutako lekuan utziko da. Lanean dauden langileek eta, bereziki, txanda-buruak edo postuen koordinatzaileak deskarga gainbegiratu dute, deskargatzeko eta segurtasuneko ekipoen egoera eta funtzionalitatea egiaztatuko dituzte eta agiriak egiaztatuko dituzte. Eskaria egiten denean hala eskatzen bada, zisternak deskargatzeko bitartekoak izan beharko ditu, ahal dela ponpa integratua, edo, bestela, zisterna presurizatuta.

Hornitutako produktuaren kopuruak eskarian adierazitakoak izango dira. BBUPri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bidalitako produktuaren kopurua eskaeran eskatutakoa baino handiagoa bada, ez da bermatuko bidalketa oso-osorik deskargatuko denik, eta instalazioaren biltegiratze-educiera gainditzen duen zati bat edo bidalketa osoa itzultzeko aukera egongo da; nolanahi ere, horrek ez dio hornitzaileari eskubiderik emango erreklamaziorik egiteko.

Materiala garraiatzen den bakoitzean identifikazio-zehaztapenak irakurtzeko moduan markatuta egon beharko dira eta informazio hau jasoko da:

- a) Albarana edo garraio-eskutitza bidalketaren datu guztiekin, hala nola izena, produktuaren merkataritza-izena, kalitatea, pisu gordina eta garbia (edo fabrikako edo biltegiko baskularen tiketa), hornitzailearen edo fabrikatzailearen izena eta helbidea eta fabrikazio-eguna.
- b) Fabrikatzailearen analisi-buletina, zehaztapenetan eta adostasun-deklarazioan eskatutako parametroen balioekin.
- c) Garraiolariaren eta bere ibilgailuaren identifikazioa eta gidariak sinatutako adierazpena, dioena ezagutzen dituela kargaren ezaugarriekin aplikatzekoak diren neurriak eta xedapenak, plegu honetako beste atal batean zehaztu den moduan.



Daturen bat falta bada edo egiazkoa ez bada, BBUPk ahala izango du bidalketa itzultzeko.

Ibilgailuaren gidariak langileen jarraibideak beteko ditu instalazioaren barneko ibilbideari jarraitzeko deskarga-lekura iritsi arte.

Ingurumen-arloko gertakaririk edo istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren emango dio horren berri kontratuaren arduradunari. Hark gertakariari buruzko idatzizko txostena eskatu ahalko du gero (kausak eta abian jarritako zuzenketa-ekintzak).

Ezustekoan isuriak gertatuz gero, berehala jasoko dira, landare-lurzorura edo saneamendu-sarera iritsi ez daitezen, eta ahalik eta lasterren emango zaio gertakariaren berri BBUPri.

6. HARRERA-KONTROLAK

6.1. LAGINAK HARTZEA

Hornidura-epean zehar, BBUPk laborategi-probak egingo ditu produktuen kalitatea eskainitakoa dela egiaztatzeko. Hala, deskarga gauzatzean edota biltegitratutako produktutik abiatuta, BBUPk lakinak hartuko ditu. Lagina osatuko dute bereizita jasotako antzeko kantitateek (bost aldiz hartu beharko dira).

Lakinak guztira 1000 ml inguru izan beharko ditu. Zuzen homogeneizatuta dagoen lagnetik beste hiru lakin eskuratuko dira: bata HUAn analizatzeko, bigarrena hornitzailearentzat izango da eta hirugarrena, hala badagokio, hornitzailearekin batera analizatzeko.

BBUPk egindako analisitik ondorioztatutako kalitatea eskatutakoa baino txikiagoa bada, emaitzak lortu bezain laster emango zaio horren berri hornitzaileari. Hornitzaileak bost egun natural izango ditu abisua ematen zaionetik tratamendu-estazioko laborategitik gordetako lagnetako bat jasotzeko. Epe hori igarotzen denean lagina jaso ez badu, suntsitu egingo da eta hornitzaileak onartu egin beharko du BBUPk emandako emaitza eta zuzentzat jo beharko du.

Konparaketa egin eta gero adostasunik ez badago, hornitzaileak aukera izango du gordetako hirugarren lagnetarekin analisi berri bat egiteko. Analisi hori erreferentziazko laborategi batean egingo da, alderdi biek adostuko dute eta emaitzak azken emaitza gisa onartuko dituzte. Azken analisi horren gastuak hornitzaileak ordainduko ditu emaitzak BBUPren analisiekin bat badatoz, eta kontrara, horren berri emango du. Azken entsegu hori behin betikoa izango da produktuaren konposizioa finkatzeko.

6.2. PISAKETA KONTROLATZEA

Adjudikaziodunak horniduren pisua kontrolatzeko erabiliko den baskularen homologazio- eta kalibrazio ziurtagiriak entregatuko ditu eta indarrean egon beharko dira.

BBUPk entrega guztiak pisatu ahalko ditu.

HUAra iristean garraio-ibilgailuak pisaketa egingo du deskargatu baino lehen. Deskarga egin eta gero pisaketa baskula berebete egingo da berriro ere. Ondorioz, pisaketa bien arteko diferentzia BBUPren pisaketa gisa erregistratuko da.



HUAn baskularik ez badago edo baskula martxan ez badago, BBUPk hornitzailearen pisaketa-txartela onartu ahalko du edo pisaketa-kontrola BBUPren beste instalazio batean edo beste baskula homologatu eta kalibratu batean egiteko eskatu ahalko du.

Hornitzaileak ez du eskubiderik izango indemnitaziorik jasotzeko entregatzean atzerapenak gertatzen badira edo kontrol horrengatik ibilgailuak ibilbide luzeagoa egin behar izan badu.

7. LAGUNTZA TEKNIKOA

Kontratuak iraun bitartean enpresa hornitzaileak BBUPrentzat eskuragarri jarriko du laguntzarako zerbitzu tekniko bat eta gutxieneko estaldurak egingo ditu:

- Telefono bidezko laguntza urteko lanegun guztietan bulego-ordutegian kontsulta teknikoak ebazteko hornitutako produktuaren erabileraren inguruan.

8. NEURKETAK ETA ORDAINKETAK

Erreaktiboa ordaintzeko instalazio hartzaileetan deskargatutako kilogramoak zenbatuko dira eta prezioaren barnean egongo dira garraioa, kargaketa eta deskargaketa lan guztiak.

Hornidura hileko ziurtagirien bidez ordainduko da. Hilabete bakoitzeko hilaren bostaren aurretik hornitzaileak aurreko hilabetearen egindako horniduren zerrenda baloratua entregatu beharko du eta oinarritzat erabiliko da zerrenda hori hileko ziurtagiria egiteko. Hileko faktura bat etorri beharko da hileko baloratutako zerrendarekin.

9. LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEA

Adjudikaziodunak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak jasotako prebentzio-ekintzen printzipioak aplikatu beharko ditu.

Kontratistari dagokio baldintza-agiri honetan jasotako lanak gauzatzeko beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea. (Esaterako: gas-detektagailuak, erreskate-ekipoak, arnasketa-ekipoak, seinaleztapen-elementuak eta abar).

Lanak hasi aurretik, hasierako bilera bat egingo da. Bilera horretan, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 32 bis artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharreko lanak aztertuko dira, lan horietarako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleitzeaz gain.

Bileran Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako hauek emango dizkio enpresa adjudikaziodunari:

- BBUPk Lan Baldintzen Arriskuen Ebaluazioa jarriko du enpresa kontratistaren esku. Ebaluazio horretan, enpresa kontratistako langileek izango dituzten arriskuak jasoko dira, BBUPren instalazioetan egiten duten lanaren ziozkoak, bai eta arrisku horiek saihesteko edo minimizatzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- BBUPk Larrialdi Plana emango dio enpresa kontratistari, edo, bestela, lana egiten duten instalazioetan larrialdiren bat gertatuz gero jarraitu beharreko irizpideak.



Kontratuaren arduradunak honako dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio enpresa adjudikazioduneko ordezkariari:

- Prebentzio-antolaketaren modalitatea.
- Erantzukizun zibileko aseguru eta ordainketa egunean izatearen egiaztatzea.
- Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztatzea (hilero bidaliko da).
- Arriskuen ebaluazioa.
- Lan-prozedura. Bertan xehatuko dira karga- eta deskarga-lanetako arriskuak eta prebentzio-neurriak.
- Justifikazio-agiria, dioena arriskuen ebaluazioaren eta lan-prozeduren berri eman zaiola garraioa azpikontratatu zaion enpresari edo enpresei, hau da, BBUPren instalazioetan sartuko direnei.

Sestao, 2026ko otsaila

Kontratuaren arduraduna,

Sin.: Koldo Lekue Marcos.